

HUHEZIKo irakasleak lan akademiko handia egiten ari dira kanpoan

2007/10/24

2007-2008 ikasturtea hasi zenetik, **HUHEZIKo irakasleak** fakultatean beste lan egiten ari dira kanpoan. Hitzaldiak direla, prestakuntza saioak, bisitak... denetik apur bat.

- **Prestakuntza ikastaroak.** HEZI institutuak bi ikastaro eman zituen berrikuntzaren inguruan, bata Donostian, non Xabi Arregi Mariam Bilbatua eta Pili Sagasta aritu baitziren, eta bestea Bartzelonan, Mariam Bilbatuaren eskutik.
- **Coaching jardunaldia.** Irailaren 5etik 7ra, Elena Quevedo eta Marian Iriondo Bartzelonan izan ziren nazioarteko kongresu batean, non azertzen baitziren zer joerak dauden irakasleen prestakuntza iraukorrean. Han komunikazio bat aurkeztu zuten: "Coaching prozesua: konpetentzien garapena unibertsitate irakasleengan".
- **Diaspora aztertzen.** Irailaren 20an Monika Madinabeitia Lisboan izan zen, eta han komunikazio bat aurkeztu zuen: "An aglomerative West (rethinking Basque immigration to the US)". Bestalde, Euskonews & Media agerkari digitalak argitaratu du Monikaren lana: "Frank Bergon, a representation of Basqueness outside Euskal Herria".
- **Diskurtsoa aztergai.** Urriaren 10etik 13ra bitartean, Arantza Ozaeta Lisboan izan zen, hango Universidade Novan komunikazio bat aurkeztu baitzuen, Luis Mari Larringanekin batera, "II Encontro Internacional do Interaccionismo Sociodiscursivo" topaketetan. Ponentziaren izenburua: "Funcionamiento socio-discursivo del discurso referido. Los sermones de un autor vasco del siglo XIX".
- **Galesko telebistarekin.** Galesko telebistak 25 urte betetzen dituela-eta, Bea Zabalondo Galesera joango da azaroaren hasierako egunetan. Han jardunaldi batzuetan hartuko du parte, eta aprobetxatuko du harremanak sendotzeko Mercator erakundearekin.

